

Turistifikazioa eta gobernantza gatazkatsua Donostian: hiritarren ikuspegia eta bizigarritasunaren erronka

Touristification and contested governance in Donostia: Citizens' perspectives and the challenge of urban livability

Julen Izagirre-Olaizola*

Universidad del País Vasco (EHU/UPV). Facultad de Economía y Empresa (Gipuzkoa),
Departamento de Economía Financiera I, Donostia/San Sebastian, Gipuzkoa, Spain

Imanol Mozo Carollo

Universidad del País Vasco (EHU/UPV). Facultad de Economía y Empresa (Gipuzkoa),
Departamento de Economía Financiera I, Donostia/San Sebastian, Gipuzkoa, Spain

Xavier Mínguez Alcaide

Universidad del País Vasco (EHU/UPV). Facultad de Economía y Empresa (Gipuzkoa),
Departamento de Economía Financiera I, Donostia/San Sebastian, Gipuzkoa, Spain

LABURPENA: Azken bi hamarkadetan, hiri-turismoaren hedapenak Europako hiri askoren egitura ekonomikoa, soziala eta espaziala eraldatu du. Testuinguru horretan, Donostia kasu paradigmaticoa da: hiri ertain bat, gero eta presio turistiko handiagoaren menpe dagoena, non turismoaren kudeaketak bi erronka nagusiri aurre egin behar dien —helmugaren lehiakortasuna mantentzea eta bizilagunen etxebizitzarako zein hirirako eskubidea bermatzea.

Artikulu honek herritarren pertzepzioak aztertzen ditu turismoaren inguruan, erakundeenganako konfiantza eta tokiko politika publikoen balorazioa, 605 biztanleri egindako inkesta baten bidez. Azterketa hori azken urteetako literaturarekin uztartzen da, turistifikazioari, gobernantzari eta ostatu turistikoen arauketari buruzko lanekin. Emaitez erakusten dute gehiegizko turismoaren inguruko kontzientzia sozial argia, udal kudeaketarekiko konfiantza urria eta kontrol-neurrien aldeko babesa — hala nola tasa turistikoa edo bisitarien deszentralizazio espaziala.

Emaizta horietan oinarrituta, gobernantza eztabaidatua kontzeptua proposatzen da, promozio turistikoaren eta arauketaren arteko oreka ezegonkorra deskribatzeko, eta politika publikoetan oinarritutako gomendioak planteatzen dira, kudeaketa parte-hartzaileago, gardenago eta iraunkorrago baten alde.

Gako-hitzak: turistifikazioa, hiri-gobernantza, Donostia, turismoaren kudeaketa, hiri-eskubidea, politika publikoak.

ABSTRACT: Over the past two decades, the expansion of urban tourism has transformed the economic, social, and spatial structures of many European cities. In this context, San Sebastián is a paradigmatic case: a medium-sized city increasingly subject to strong tourist pressure, where tourism management must address two main challenges — maintaining the destination's competitiveness and guaranteeing residents' rights to housing and to the city.

This article analyses residents' perceptions of tourism, their trust in public institutions, and their assessment of local public policies, based on a survey conducted with 605 inhabitants. The analysis is complemented by recent literature on touristification, governance, and the regulation of tourist accommodation. The results reveal a clear social awareness of overtourism, low levels of trust in municipal management, and strong support for control measures — such as a tourist tax or the spatial decentralisation of visitors.

Building on these findings, the concept of deliberative governance is proposed to describe the unstable balance between tourist promotion and regulation, and policy recommendations are put forward to encourage more participatory, transparent, and sustainable management.

Keywords: touristification, urban governance, San Sebastian, tourism management, the right to the city, public policies.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Julen Izagirre-Olaizola. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) — julen.izagirre@ehu.eus

Nola aipatu / How to cite: Izagirre-Olaizola, Julen; Mozo Carollo, Imanol; Mínguez Alcaide, Xavier (2025). «Turistifikazioa eta gobernantza gatazkatsua Donostian: hiritarren ikuspegia eta bizigarritasunaren erronka»; 251 - *Enpresa eta Ekonomia aldizkaria*, 1, 59-83. (<https://doi.org/10.1387/251eea.28297>).

1. SARRERA

Azken hamarkadan, turismo urbanoa Europako eraldaketa ekonomiko eta lurraldeko prozesuen eragile nagusietako bat bihurtu da (WTTC, 2025a). Enplegua, inbertsioa eta nazioarteko proiektzioa sortzeko duen gaitasunari esker, hazkunde ekonomikoaren motor gisa sendotu da; hala ere, gero eta kezka handiagoa piztu du ekartzen dituen eragin sozial eta ingurumenekoengatik. 2024an sektoreak munduko BPGaren % 10 inguru eta Espainiakoaren % 14 baino gehiago barneratzen zuen (WTTC, 2025b), eta horrek azaltzen du haren zentralitatea hiri-garapenaren estrategietan. Hala eta guztiz ere, turismoaren arrakasta kuantitatiboa tentsio gero eta agerikoagoekin nahasten da: hiri-espazioaren saturazioa, etxebizitza eskuragarrien galera, bizilagunen arteko gatazkak eta kudeaketaren arduradunekiko konfiantza falta.

Testuinguru horretan, literatura espezializatuak *overtourism* eta turistifikazioa kontzeptuak txertatu ditu, helmugaren gizarte- eta ingurumen-gaitasunak gainditzen dituen erabilera turistikoaren intentsitatea deskribatzeko. Ez da fenomeno kuantitatibo hutsa —bisitari gehiegi—, baizik eta gobernantzaren auzia: nork erabakitzen duen espazioaren erabilera, nola banatzen diren turismoaren onurak eta kostuak, eta zein neurritan txertatzen den herritarren ahotsa plangintzan (Koens *et al.*, 2018; Milano *et al.*, 2017).

Donostia eztabaida hori ulertzeko eszenatoki adierazgarria da. Hiri ertaina eta turismoarekiko mendekotasun handikoa izanik, etxebizitza parkea urria eta jabetzakoa du, eta, aldi berean, gero eta presentzia handiagoa dute ostatu turistikoek, bereziki Airbnb bezalako plataformen bitartez. Prozesu horrek etxebizitza merkatuaren tentsioa, bizilagunen arteko elkarbizitza eta politika publikoen zilegitasuna kolokan jarri ditu, funtzio erresidentzialaren eta turismoaren logika ekonomikoaren arteko gatazka sortuz.

Europako metropoli handietan, turismoa kudeatzeko egitura administratibo sendoak badauden bitartean, hiri ertainak —Donostia kasu— gaitasun tekniko, fiskal eta normatibo mugatuagoekin aritzen dira; horrek agerian uzten du haien gobernantzaren ahulezia. Ondorioz, erregulazio gatazkatsua sortzen da: kontrol-neurrien (zonifikazioa, lizentzien etenaldia) eta sustapen-estrategien arteko bizi-kidetza, lehiakortasun turistikoa mantentzeko asmoz.

Azken urteetan, turismo urbanoaren hedapenak bat egin du etxebizitzaren finantzarizazioarekin (Aalbers, 2020; Cocola-Gant eta Gago, 2021) eta eskaintza eta eskariaren arteko bitartekaritza egiten duten plataforma digitalen gorakadarekin. Dinamika horiek tokiko hiri-espazioaren sarbide-moduak aldatu dituzte, eta hiri ertainen rola birkonfiguratu dute turismoaren ekonomia globalean. Ondorioz, galdera berriak sortzen dira: gai izango al dira garapen-eredu orekatu, inklusibo eta iraunkor bati eusteko?

Donostia kasu paradigmatikoa da, tokiko identitate sendoa eta turismo globalaren logikekiko esposizio bizia uztartzen dituelako. Haren eskala ertainak aukera ematen du argi ikusteko merkatuaren eta hiri-eskubidearen (Harvey, 2012; Lefebvre, 1968) arteko tentsioaren mekanismoak, eta laborategi egokia bihurtzen du turismoarekin lotutako politika urbanoak nola eraikitzen, negoziatzen eta eztabaidatzen diren aztertzeko.

Lan honek tentsio hori aztertzen du ikuspegi enpiriko eta aplikatu batetik. Herritarren lagin adierazgarri bati egindako inkestaren bidez, hiru dimentsio aztertzen dira: (i) turismoaren eta haren eraginen inguruko pertzepzioak, (ii) kudeaketaren eta erakundeenganako konfiantzaren balorazioa, eta (iii) erregulazio-neurrien aurrean dituzten jarrerak. Ikuspegiak tresna kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartzen ditu —datu estatistikoak, arau-esparruak eta pertzepzioak—, tokiko gobernantza turistikoaren irakurketa eskala anitzetik eskaintzeko. Oinarri horretatik, hiri ertainek dituzten gobernantza turistikoaren erronkak eztabaidatzen dira, eta politika publikoen orientabideak proposatzen dira, iraunkortasun urbano eta justizia espazial handiagoaren alde.

2. MARKO TEORIKOA: TURISTIFIKAZIOA, GOBERNANTZA ETA HIRIA-ESKUBIDEA

2.1. Turismoaren hedapenetik turistifikazio urbanora

Azken bi hamarkadetan, turismo urbanoak jarduera ekonomiko osagarritik hiri garaikideen berrantolaketa estrukturalaren ardatz nagusietako bat izatera igaro da. Horrek «helmuga-hiriaren» eredua zabaldu du: balio ekonomikoa sortzeko prozesua ondarearen, kulturaren eta espazio publikoaren merkantilizazioan oinarritzen den eredua (Gotham, 2005; Gravari-Barbas & Guinand, 2017).

Turistifikazio kontzeptua prozesu horri erreferentzia egiteko sortu zen: turismoaren logikaren pean espazio urbanoaren eraldaketa estrukturala deskribatzeko (Cócola-Gant, 2016). Ez da soilik bisitari edo ostatu kopuruen hazkunde bat; baizik eta hiriaren mutazio funtzional eta sinbolikoa, non jarduera arruntak, erabilera erresidentzialak eta iruditeria urbanoak kontsumo turistikoaren logikari men egiten dioten (Hiernaux eta González, 2014; Sequera eta Nofre, 2018).

Overtourism kontzeptuak espazioaren eta pertzepzioaren saturazioa azpimarratzen duen bitartean (Goodwin, 2017; Koens *et al.*, 2018), turistifikazioak izaera estruktural eta politiko handiagoa du: espazioaren, errenten eta botere urbanoaren berrantolaketari egiten dio erreferentzia (Erauskin-Tolosa *et al.*, 2021). Fenomeno hori ezin da bereizi gaur egungo kapitalismo urbanoaren dinamiketarik eta etxebizitzaren finantzarizaziotik; bi horien bidez, turismoa ekoizpen-indar bihurtzen da hiriaren ekonomian (Milano *et al.*, 2019).

Hiri ertain europarrak bereziki adierazgarriak dira. Ez dute Bartzelona edo Lisboako metropolien pilaketa-mailarik, baina aldaketa azkarrak bizitzen dituzte bai etxebizitza-merkatuan, bai merkataritza-morfologian, bai auzoen osaera sozialean (Gravari-Barbas eta Guinand, 2017; Mozo Carollo *et al.*, 2024; Novy eta Colomb, 2019). Hiri horietan, turistifikazioa ez da bisitari kopuruaren arabera neurtzen, baizik eta turismoaren txertatze-intentsitatearen arabera eta tokiko administrazioek hura kudeatzeko duten gaitasun mugatuaren arabera agertzen da.

2.2. Gobernantza turistikoa eta hiriaren erregulazioa

Turismoaren gobernantzari buruzko gaur egungo eztabaidak azpimarratzen du ikuspegi sektorialetik kudeaketa integral batera igartzeko beharra. Hori aktore publiko, pribatu eta komunitarioen arteko harreman-sare gisa ulertzen da, non lankidetzak eta gatazka etengabe uztartzen diren (Bramwell eta Lane, 2011). Hiri-esparruan, horrek esan nahi du etengabe negoziatu behar dela lehiakortasun ekonomikoaren eta iraunkortasun sozialaren arteko oreka.

Turistifikazio nabarmeneko testuinguruetan, tokiko gobernantzak tentsio estrukturalak ditu aurrean. Alde batetik, hiriek helmuga lehiakor gisa erakargarritasuna mantendu nahi dute, turismoaren sustapen-politikak bultzatuz (Ashworth eta Page, 2011). Bestetik, gero eta handiagoa da etxebizitza eskuragarriaren galerak, espazio publikoaren saturazioak eta bizilagunen desplazamenduak eragindako presio soziala (Fainstein, 2018; García-Hernández *et al.*, 2019). Dualtasun hori «erregulazio gatazkatsua» (*contested regulation*) gisa kontzeptualizatu da (Novy eta Colomb, 2019): liberalizazio- eta kontrol-estrategiak batera existitzen diren tentsio-eremua, sarritan modu kontraesankorrean.

Airbnb bezalako plataforma digitalen agerpenak eta autonomia- zein tokiko administrazioen arteko eskumen-zatiketak arau-esparru osatugabeak sortu dituzte. Horietan, udalek ardura gero eta handiagoak hartzen dituzte, baina ez dituzte behar adinako tresna juridiko eta administratiboak (Blázquez-Salom *et al.*, 2019; De la Calle Vaquero *et al.*, 2021; Sequera eta Nofre, 2018). Eszenatoki horretan, arautzeak izaera erreaktibo eta esperimentalak hartzen du: lizentzien moratoriak, zonifikazio bere-

ziak edo tasa turistikoak ezartzen dira, baina aldi berean turismoaren sustapena indartzen duten politikak mantentzen dira, kontraesan estrukturalari eutsiz.

Esparru hibrido horrek zilegitasun instituzionalaren gaineko ondorio zuzenak ditu. Gobernantza parte-hartzaile eta gardenik ezean, eraginkortasun-falta edo interes partikularren menpekotasunaren pertzepzioak gizartearen babesa ahuldu dezake politika publikoekiko (Dredge eta Jamal, 2015).

2.3. Hiri-eskubidea, hiritarren pertzepzioa eta justizia espaziala

Hiri-eskubidearen inguruko eztabaidak (Harvey, 2012; Lefebvre, 1968) marko normatibo egokia eskaintzen du turistifikazioa justizia espazialaren ikuspegitik aztertzeko. Horrek esan nahi du biztanleek beren ingurua eragiten duten erabakietan aktiboki parte hartzeko eta hiri-baliabideetatik modu bidezkoan onura ateratzeko aukera izatea.

Etxebizitza eskuragarrien galerak, turismo-gentrifikazioak eta espazio publikoaren pribatizazioak desjabetze urbanoaren formak hartzen dituzte (Cócola-Gant, 2019; Gravari-Barbas eta Guinand, 2017; Jordan *et al.*, 2021; Milano *et al.*, 2023). Ikuspegi horretatik, herritarren pertzepzioek balio analitiko berezia hartzen dute, ikuspegi psikosozial hutsetik haratago: zilegitasun instituzionalaren eta ereduaren iraunkortasun politikoaren adierazle bihurtzen dira. Del Romero Renauk (2018) adierazi bezala, jarduera turistikoaren onarpen soziala kostuen eta onuren banaketa bidezkoaren pertzepzioaren arabera da.

Turismo-gatazkak ez dira soilik bisitari kopuruaren gehiegizkoaren ondorio; helburu instituzionalen eta herritarren itxaropenen arteko deskonexioak ere sortzen ditu (Koens *et al.*, 2018). Udal-kudeaketak errentagarritasun ekonomikoa bizigarritasunaren gainetik jartzen duela hautematen denean, konfiantza-galera gertatzen da, eta horrek eredu turistikoaren iraunkortasuna kolokan jartzen du (De la Calle-Vaquero *et al.*, 2021; Milano *et al.*, 2019).

2.4. Sintesia

Aurreko berrikuspenetik abiatuta, ikerketa honek hiru ardatz kontzeptual nagusi uztartzen ditu: (1) turistifikazio urbanoaren prozesua, hiriaren erabilerak, esanahiak eta eragileak berrantolatzen dituen eraldaketa estruktural gisa; (2) gobernantza turistikoa, sustapen-politiken eta arauketa-estrategien arteko gatazka-eremua gisa; eta (3) hiri-eskubidea, turismoaren iraunkortasun soziala ebaluatzeko irizpide normatibo gisa.

Oinarri horietan abiatuta, azterketa enpirikoa Donostiako biztanleek turismoaren eraginak nola hautematen dituzten aztertzea du helburu: nola baloratzen duten Udalaren jarduna eta zein neurri jotzen dituzten egokienak kudeaketa bidezko eta iraunkorrako baterantz aurrera egiteko. Ikuspegi honek datu enpirikoak hiri-gobernantza eta justizia espazialaren inguruko eztabaidekin lotzen ditu, hiri ertainei buruzko turismo-gatazkaren irakurketa osatua eskaintzeko.

3. KASU-AZTERKETA: DONOSTIA ETA GOBERNANTZA TURISTIKOAREKIKO GATAZKA

3.1. Hiri-eraldaketak eta presio turistikoa

Azken hamabost urteetan, Donostia helmuga turistiko estazional izatetik penintsulako hiri bisitatuenetako bat izatera igaro da. Eustaten (2025) arabera, urtero 1,03 milioi gau baino gehiago erre-

Turistifikazioa eta gobernantza gatazkatsua Donostian: hiritarren ikuspegia eta bizigarritasunaren erronka*Julen Izagirre-Olaizola, Imanol Mozo Carollo, Xavier Mínguez Alcaide*

gistratu dira (1,57 milioi Gipuzkoan eta 3,76 EAEn), 2010etik aurrerako hazkunde jarraituarekin. 2024an, establezimendu arautuetan lo egindako bidaiarien kopurua %2,7 hazi zen aurreko urtearekiko, eta atzerriko turismoa totalaren %63 izan zen (Noticias de Gipuzkoa, 2025). Dinamismo horrek turismoaren pisua sendotu du ekonomiaren motor gisa —Gipuzkoako BPGaren %8 baino gehiago eta tokiko enpleguaren %12 inguru (Eusko Jaurlaritzak, 2025)—, baina, aldi berean, desoreka sozial eta lurraldekoak agerian utzi ditu.

Donostiako turismoaren hazkundera ez da merkatuaren logikaren ondorio hutsa; politika publikoek ere izan dute zeresan handia, hiri nazioarteko helmuga kultural eta gastronomiko gisa kokatzeko helburuarekin. Azken urteotan, kultura-gastronomia binomioan oinarritutako estrategiak «boutique-hiriaren» irudia indartu du, baina baita turismoarekiko menpekotasuna ere.

Alde Zaharra, Erdialdea eta Gros auzoek turismo-eskaintzan duten zentralitateak presio espaziala handia sortu dute: lurzoruaren prezioaren igoera, bertako merkataritza txikiaren ordeztasunari zuzendutako eskaintza, eta espazio publikoen saturazioa. Azken ikerketek erakusten dute turismo-gentrifikazio prozesua gertatzen ari dela eskualde askotan; bertan, etxebizitza-errotazioak eta epe laburreko alokairuetarako eraldaketek biztanleria egonkorra murriztu dute (Aguado eta Del Campo, 2023).

Horri gehitu behar zaio etxebizitza turistikoaren eta ostatu informala hedapena, bizileku-funtzioaren galeran eta ehun urbanoaren homogeneizazioan laguntzen dutenak. Ondorioz, esperientzia turistikoaren logikak auzoen eguneroko bizitza kolonizatzen jarraitzen du pixkanaka (De la Calle-Vaquero *et al.*, 2021).

Donostiaren egitura morfologiko trinkoak —hiri trinkoa eta lurzoru eskasekoa— turismoaren inpaktu areagotu egiten du. Bartzelona edo Madril bezalako hiri handiekin alderatuta, Donostiak turismoa liseritzeko gaitasun espazial mugatua du; horrek areagotu egiten du etxebizitza- eta turismo-erabileren arteko lehia. Zentzu horretan, Donostia hiri ertain tentsionatuaren adibide paradigmakoa da, non turismoaren kudeaketa eta etxebizitza-politikak elkarri lotuta dauden hiri-plangintzaren barruan.

Eskala eta karga-gaitasun urbanoaren arteko tentsioa agerian geratzen da turismo-fluxuak dibertsifikatzeko eta onurak banatzeko orduan. Deszentralizazio-politikek ez dute lortu erdiguneko gainkarga arintzea. Desoreka horrek erakusten du egungo gobernantza-ereduaren mugak, eta beharrezkoa dela iraunkortasun turistikoa berriro pentsatzea ikuspegi lurraldeko batetik.

3.2. AirBnb eta etxebizitzaren finantzarizazioa

Donostiako turistifikazioaren ardatz nagusietako bat epe laburreko ostatu turistikoaren hedapena izan da, bereziki AirBnb bezalako plataforma digitalen bidez (Benítez-Aurioles, 2020; Etxezarreta-Etxarri *et al.*, 2020; Izagirre-Olaizola *et al.*, 2021; Morandeira-Arca *et al.*, 2023; Mozo Carollo *et al.*, 2024). Eredu horren sarrerak alokairu-merkatuaren egitura eraldatu du, eta finantzarizazio-prozesua bulztatu du (Aalbers, 2020; Cocola-Gant eta Gago, 2021).

2015 eta 2023 artean, etxebizitza turistiko erregistratuen kopurua bost aldiz handitu da, 1.296 iragarkira iritsiz (InsideAirbnb, 2023; Mozo *et al.*, 2023). Horietatik %80 Parte Zaharrean, Erdialdean eta Grosen pilatzen dira, eta horietan Airbnbren dentsitatea Donostiako altuena da (Aguado eta Del Campo, 2020).

Etxezarreta *et al.* (2020) eta Mozo *et al.* (2023) egileek erakutsi dute Airbnbren dentsitatearen hazkundeak alokairuaren prezioetan eragin zuzena duela: %1eko igoerak 49,45 euroko gehikuntza ekartzen du hileko errentan, batez besteko 1.050 euroko prezioaren gainean. Efektu hori bereziki nabarmena da turistifikazio handieneko auzoetan, non etxebizitza iraunkorrak alokairu turistiko bihurtzeko joera handiagoa baita.

Airbnbren eredia ere gero eta profesionalizatuagoa bihurtu da. Aguado eta Del Campo (2020) eta Morandeira-Arca *et al.* (2023) egileen lanek erakusten dute eskaintza gero eta gehiago operadore profesional gutxi batzuen esku dagoela, eta etxebizitza osoak nagusitzen direla. Horrek urrundu egiten du jatorrizko ideia, partikularren arteko truke gisa ulertzen zena, eta negozio logika profesionalizatu batean finkatzen du jarduera.

Joera horrek alokairuen prezioetan eta auzoen gizarte-ehunduran eragin zuzena izan du. 2014 eta 2019 artean, etxebizitzaren prezioak %35-40 bitartean hazi dira (Aguado eta Del Campo, 2020; Etxezarreta *et al.*, 2020), eta horrek segregazio eta funtzio galera areagotu du Alde Zaharrean eta Erdialdean. Igoera horren zati bat zuzenean lotzen da etxebizitza iraunkorrak ostatu turistiko bihurtzearekin, eta horrek segregazio sozioespaziala eta aniztasun funtzionalaren galera elikatzen ditu (Cócola-Gant, 2019).

Maila instituzionalean, Udalaren erantzuna progresiboa baina zatikatua izan da. 2023ko martxoan, hotel eta etxebizitza turistiko berrietarako lizentzien etetea onartu zen (Donostiako Udala, 2024), gehien saturatutako eremuetan neurri zuzentzaile gisa. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Turismoaren 13/2016 Legearen bidez erregistroaren derrigortasuna eta dentsitateak mugatzeko eskumena ezarri zituen. Hala ere, gobernantza-sistema multieskala oraindik osatu gabe dago, eta eskumenak gainjarrita daude administrazio-mailen artean (De la Calle Vaquero *et al.*, 2021).

Airbnbren hedapenak Donostian —eta, oro har, Europako beste hiri batzuetan bezala— erakusten du nola plataforma-kapitalismoa eta turismoaren ekonomia uztartzen diren. Ondorioz, etxebizitza baliabide bikoitz bihurtzen da: aktibo finantzarioa inbertitzailearentzat eta bizi-eskubidearen ardatz gatazkatsua bizilagunentzat (Mozo *et al.*, 2023). Testuinguru horretan, beharrezkoa da turismoaren iraunkortasun ekonomikoa, justizia espaziala eta gizarte-kohesioa uztartuko dituen kudeaketa-estrategia integratu bat.

3.3. Udal-politikak eta gobernantza gatazkak

Donostiako udal gobernuak turismoaren kudeaketa sustapenaren eta murrizketaren arteko konbinazio baten bidez landu du, eta horrek ereduaren anibalentzia agerian uzten du. Alde batetik, San Sebastián Turismoa sozietate publikoak hiria gastronomia eta kultura aldetik bikaintasunaren helmuga gisa proiektatzeko marketin-estrategiak bultzatzen jarraitzen du. Bestetik, Hirigintza eta Etxebizitza Sailak neurri murriztaile multzo bat ezarri du azkenaldian, turismoaren ondorioak espazio erresidentzialean arintzeko helburuarekin.

Dualtasun instituzional hori «governantza turistiko hibridoa» gisa definitzen dute Bramwell eta Lane-k (2011), lehiakortasuna bilatzearen eta arauketa beharraz jabetzearen arteko uztarketa gisa. Donostian, bi logika horiek —sustapenekoa eta murriztailea— udal aparatu berean bizi dira elkarrekin, eta horrek tentsioak sortzen ditu sail administratiboen artean. Politika nagusien artean nabarmentzen dira:

- Lizentzia-moratoria (2023): auzo saturatuetan etxebizitza turistiko eta hotel berrien baimenak etetea.
- Zonifikazioa eta mugapen espazialak: presio handiko eremuak eta bizileku babestuen gunek bereiziz.
- Bisita-taldearen tamainaren arauketa (gehienez 25 pertsona) eta giden erregistro derrigorrezkoa ezartzea (Donostiako Udala, 2024).
- Ostatu ilegaleen ikuskaritza indartzea eta plataforma digitalekin lankidetzat iragarki baimenik gabek kentzeko.
- Tasa turistikoaren inguruko eztabaida, gehiengo sozialaren babes zabala duena, baina oraindik arau-esparru autonomiko komun baten zain dagoena.

Turistifikazioa eta gobernantza gatazkatsua Donostian: hiritarren ikuspegia eta bizigarritasunaren erronka*Julen Izagirre-Olaizola, Imanol Mozo Carollo, Xavier Mínguez Alcaide*

Horrez gain, 2019-2023 Turismo Iraunkorraren Plan Estrategikoak lehen aldiz hiriaren karga-gaitasunaren kontzeptua txertatu zuen, baina haren koordinazio falta HAPOarekin (Hiria Antolatzeako Plan Orokorra) eta Etxebizitza Planarekin eraginkortasuna mugatu zuen.

Aurrerapauso horiek gorabehera, gizarte-pertzepzioek oraindik diskurtsoaren eta praktikaren arteko aldea nabarmentzen dute. Turismoaren sustapen-politikak —askotan tokiko sektore ekonomikoekin eta helmugaren nazioarteko proiektioarekin lotuak— uztartu egin behar dira herritarren kontrol, gardentasun eta onura-banaketa handiagoaren eskariarekin.

2022 eta 2024 bitartean antolatutako inkestek eta foro parte-hartzaileek adierazten dute gizarte-adostasun zabala dagoela ostatu turistikoen hedapena mugatzearen beharraren inguruan. Hala ere, eskari horien erantzun instituzionala motela izan da, diagnostikoaren baino gehiago, inplementazio-gaitasunaren defizita agerian utziz.

Elkarren ondoan bizikidetzat horrek «governantza gatazkatsua» definitzen du (Novy & Colomb, 2019): interes ekonomikoen eta hiri-justizia eskaeren arteko oreka ezegonkorra, non planifikatzeko gaitasun instituzionala mugatua den presio politikoengatik eta eskumenen zatiketarekin. Donostia, Reykjavík, Porto edo Dubrovnik bezalako beste hiri ertain europar batzuekin batera, turismoaren kudeaketa garaikidearen paradoxa horien adierazgarri da: arautzea desinzentibatu gabe; mugatzea ekonomia lokala gelditu gabe; eta planifikatzea tresna nahikorik gabe.

Azken finean, gobernantza turistiko deliberatiboa eraikitzea da erronka nagusia: herritarren parte-hartze eraginkorra txertatzea, kontsulta-prozesu hutsetatik harago. Planifikazio parte-hartzaile eta gardenak soilik ahalbidetuko du logika erreaktiboa gainditzea eta benetan iraunkorra den hiri-turismoaren eredurantz aurrera egitea.

Governantza turistiko deliberatiboa turismoari buruzko erabakiak deliberazio publiko egituratuaren bidez hartzen diren ikuspegi gisa ulertu daiteke, non aktore anitzek (administrazioak, sektore turistikoak, bizilagunek eta gizarte zibilak) parte hartzen duten eta gardentasuna, inklusioa eta adostasuna lehenesten diren (Tuomi eta Passos Ascensão, 2023). Turismoaren arloan, ikuspegi hau azken urteotan garatzen hasi da. Politika turistikoen kalitatea gehiago baldintzatzen du erabaki-prozesuak berak, ez parametro tekniko isolatuek (Hall, 2013). Ondorioz, helmuga turistikoek gero eta gehiago jo beharko lukete gobernantza kolaboratiborantz, non deliberazioa eta politikak modu ko-produzitzuan diseinatzea funtsezkotzat jotzen diren (Zhang, 2021).

Testuinguru urbanoan aplikatuta, ikuspegi honek iradokitzen duenez, kudeaketa ez da soilik «karga-gaitasunaren» bezalako parametro teknikoetan oinarritu behar, baizik eta gobernantza-prozesuaren kalitatean: inklusioa, elkarriketa egituratua, legimititatea eta adostasuna (Tuomi eta Passos Ascensão, 2023).

Logika teoriko hau gero eta gehiago ikusi da Europako hiri batzuetan egindako esperientzietan. Barzelonan, esaterako, Turismoaren Plan Estrategikoak auzoetako mahai deliberatiboak, herritarren eztabaida-talde irekiak eta sektoreko eragileekin egituratutako elkarriketak txertatu zituen, eta horiek guztiek eragin zuzena izan zuten politika turistikoen norabidean (Ajuntament de Barcelona, 2017; UNWTO, 2019). Amsterdamen, azken urteetan, bizilagunen panel deliberatiboak eta kontsulta-egiturak erabili dira alokairu turistikoaren mugaketa, erdiguneko erabileren kudeaketa eta bisitari-fluxuen kontrola bezalako gai gatazkatsuetan, herritarren ahotsa erabakietan txertatzeko (Boekema, 2018). Bestalde, Kopenhagek lankidetzat eta ko-sorkuntza-estrategiak garatu ditu, Wonderful Copenhagen erakundearen bidez, non tokiko komunitateak, enpresek eta administrazioak batera parte hartu duten hiriaren turismo-eredua eztabaidatzeko eta berritzeko (Halkier eta Jensen, 2020). Esperientzia hauek guztiek erakusten dute gobernantza deliberatiboak, neurri batean aplikatuta ere, aukera ematen duela hiri turistikoetan oreka sozial handiagoa, gardentasun handiagoa eta erabaki partekatuagoak sustatzeko.

4. METODOLOGIA

4.1. Ikuspegia eta helburuak

Ikerketa honen helburua donostiarrek turismoari buruz zer iritzi duten jakitea da, eta nola baloratzten duten haren eragina eguneroko bizitzan. Horretarako udal kudeaketa eta erakundeekiko konfiantza, eta baita kudeaketa- eta arauketa-neurrien inguruko jarrerak ezagutu nahi dira ere. Horretarako, ikuspegi kuantitatibo-deskriptiboa erabili da.

Lan hau herritarren pertzepzioak zilegitasun instituzionalaren adierazle direlako premisaren gainean oinarritzen da, eredu turistikoaren iraunkortasunaren giltzarri direlarik (Dredge eta Jamal, 2015; Milano *et al.*, 2019).

Jarrerak eta balorazioak sistematikoki neurtuz, tokiko kudeaketa turistikoaren politikekiko onarpena edo errefusa azaltzen duten faktoreak identifikatu nahi dira.

4.2. Diseinua eta lagina

Ikerketa diseinu kuantitatibo, deskriptibo eta zeharkako batean kokatzen da, hiri-turismoarekiko eta haren gobernantzarekiko Donostiako herritarren pertzepzioak eta jarrerak aztertzeko.

Ikuspegia kudeaketa publikotik eta hiri-eskubidearen ikuspegitik bideratu da, ez psikologia indibidualetik, helburua erakundeekiko konfiantzaren eta kudeaketa-ereduen balorazioaren ereduak identifikatzea baita.

Datuak lortzeko, inkesta egituratu bat egin zen Donostiako 605 biztanleri. Datu bilketa 2023ko urri-tik abendura bitartean garatu zen, aurrez aurreko eta lineako galdetegien bidez.

Erabilitako laginketa estratifikatua izan zen, auzoen arabera, eta genero eta adinaren arabera kuantak ezarri ziren, hiri-lurraldearen eta talde demografikoen ordezkaritza orekatu bat bermatzeko. Errore-marjina $\pm\%4$ koa izan zen, %95eko konfiantza-mailarako.

Laginetik %59 emakumeak ziren, eta %41 gizonezkoak. Gehiengoa 45 eta 64 urte bitartekoen taldea izan zen (%58).

Auzo mailan, laginaren %45,3 presio turistiko handiko eremuetatik dator (Alde Zaharra, Gros, Erdialdea eta Antiguoa), eta %54,7 hiriaren gainerako auzoetatik.

4.3. Neurketa-tresna, aldagaiak eta ikuspegia

Galdetegia azken urteetako hiri-turismoaren, gobernantzaren eta hiri-eskubidearen inguruko literatura akademikoan oinarrituta diseinatu zen, aurretik egindako ikerketetan erabilitako adierazleak txertatuz (Cócola-Gant, 2016; Kušcer eta Mihalic, 2019).

Bilketa orokorraren aurretik, proba pilotu bat egin zen ($n = 30$), itemen ulermena eta barne-koherentzia egiaztatzeko.

Azken galdetegiak 86 aldagai bildu zituen, bost bloke tematiko hauetan banatuta:

- Turismoari buruzko pertzepzioak eta sinesmenak (eragin positiboak eta negatiboak).
- Politika publikoen eta kudeaketa turistikoaren balorazioa, tokiko erakundeenganako konfiantza barne.
- Gizarte-emozioak turismoaren aurrean.

Turistifikazioa eta gobernantza gatazkatsua Donostian: hiritarren ikuspegia eta bizigarritasunaren erronka*Julen Izagirre-Olaizola, Imanol Mozo Carollo, Xavier Mínguez Alcaide*

— Bizitza-kalitatearen eta turismoarekin lotutako estres urbanoaren pertzepzioa.

— Turismo-ereduarekiko jokabide-jarrerak (onarpena, moldapena, protesta).

Item bakoitza Likert eskala batean ebaluatu zen, 5 puntukoa, «erabat ados ez» eta «erabat ados» artean. Barne-koherentzia Cronbachen alfa koefizientearen bidez egiaztatu zen ($\alpha = 0,86$ item multzo osoarentzat).

Analisiaren argitasuna eta emaitzen ikusgarritasuna hobetzeko, Likert eskalako puntuazioak lan honetarako birtaldekatu ditugu: 1 eta 2 puntuazioak kategoria berean bildu ditugu, eta 4 eta 5 puntuazioak beste batean, horrela jatorrizko bost puntuko eskala hiru puntuko («ez ados», «neutro», «ados») eskalara egokituz.

Analisi estatistiko deskriptiboak (maiztasunak, batez bestekoak eta desbideratze estandarrak) eta konparazio esploratzaileak egin ziren, aldagai sozio-demografiko eta lurraldekoen arabera (adina, generoa eta auzoa).

Aurkezten den analisia hiru ardatz nagusitan antolatzen da:

— Herritarren turismoaren inguruko pertzepzioa eta haren eragina hiriaren-bizitzan.

— Kudeaketa instituzionalaren balorazioa eta konfiantza mailak.

— Arauketa eta gobernantza-neurrien inguruko jarrerak.

Egitura honek datu enpirikoak aurreko ataletan aztertutako eztabaida teorikoekin lotzeko aukera ematen du, eta Donostiako gobernantza turistikoa hazkunde ekonomikoaren, iraunkortasun urbanoaren eta justizia sozialaren arteko gatazka-eremu gisa interpretatzeko oinarri sendoa eskaintzen du.

1. taula. Laginaren banaketa aldagai sozio-demografikoen arabera

		n	% *
SEXUA	Emakumeak	356	% 58,8
	Gizonak	249	% 41,2
ADINA	<44	150	% 24,8
	45-64	352	% 58,2
	65+	103	% 17
BIZILEKUA	Presio turistiko handia**	274	% 45,3
	Bestelako auzoak	331	% 54,7
IKASKETA-MAILA	Goi mailakoak	412	% 68,1
	Bigarren mailakoak	159	% 26,3
	Oinarrizkoak	20	% 3,3
FAMILIAREN URTEKO DIRU-SARRERA	<20.000€	46	% 7,6
	20.000-40.000€	163	% 26,9
	40.000-70.000€	200	% 33,1
	>70.000€	85	% 14

* Kasu batzuetan ehunekoen batura ez da % 100, erantzunik gabeko kasuak daudelako

** Alde Zaharra, Gros, Erdialdea eta Antiguoa

Iturria: Egileen elaborazioa.

5. EMAITZAK

5.1. Hiriari eta turismoari buruzko pertzepzio orokorrak

5.1.1. Lekuarekiko identitatea eta dependentzia

Lekuarekiko identitateari eta dependentziari buruzko pertzepzioen azterketak aukera ematen du herritarren lotura afektibo eta funtzionalaren maila aztertzeko, bai Donostiarekin, bai norberaren auzoarekin. Bi eskalek irakurketa osagarriak eskaintzen dituzte: lehenak jabetza-sentimendua eta atxikimendu sinbolikoa neurtzen ditu; bigarrenak, berriz, ingurune urbanoaren erabilgarritasuna, asebetetzea eta ordezkazintasuna bizi-espazio gisa.

Lekuaren identitateari buruzko emaitzek erakusten dute sustraipen handia eta hiriari lotutako jabetza-sentimendu zabala (2. taula).

Emaitza hauek, oro har, bizilekuarekiko eta hiriarekiko identifikazio emozional bizi bat erakusten dute. Herritarren bi herenetik gora Donostiaren parte sentitzen dira, eta beren auzoa nortasun pertsonalaren osagai garrantzitsutzat jotzen dute. Item erreflexiboenetan —adibidez, «Donostia eta nire auzoan bizitzeak asko esaten du nire buruaz»—, erantzunek oreka handiagoa erakusten dute, baina adostasunak nagusi izaten jarraitzen du.

2. taula. Lekuarekiko identitatea Donostia eta auzoarekiko

Item: «Donostia eta nire auzoa...»	Ados	Neutro	Ez ados
Nire parte dira	% 70	% 17	% 13
Oso bereziak dira niretzat	% 78	% 15	% 7
Indar handiz identifikatzen naiz haiekin	% 64	% 24	% 12
Oso lotuta nago beraiekin	% 69	% 21	% 10
Hor bizitzeak asko esaten du nire buruaz	% 50	% 30	% 20
Esanahi handia dute niretzat	% 72	% 20	% 8

Iturria: Egileen elaborazioa.

Atxikimendu-maila altu horrek iradokitzen du, turistifikazioaren ondoriozko gatazkei aurre egin arren, herritarrek lotura sinboliko sendoa mantentzen dutela hiriaren aurrean. Jabetza-sentimendua oraindik ere identitate-baliabide esanguratsua da, nahiz eta hiri-aldaketa azeleratuaren testuinguruan egon.

Lekuarekiko dependentzia eskalak pertsonak ingurunea ordezkaezin edo funtzionalki garrantzitsutzat jotzen duen maila neurtzen du. Emaitzak aurreko eskalakoak baino anitzagoak dira, eta horrek erakusten du lotura praktikoago eta ñabartuagoa dagoela espazio urbanoarekin (3. taula).

Turistifikazioa eta gobernantza gatazkatsua Donostian: hiritarren ikuspegia eta bizigarritasunaren erronka*Julen Izagirre-Olaizola, Imanol Mozo Carollo, Xavier Mínguez Alcaide***3. taula. Lekuarekiko dependentzia Donostia eta auzoarekiko**

Item: «Donostia eta nire auzoa...»	Ados	Neutro	Ez ados
Gustuko dudana egiteko lekurik onenak dira	% 50	% 29	% 22
Ez dago haiekin alderatu daitekeen lekurik	% 34	% 31	% 35
Beste edonon baina atseginagoa da hemen bizitzea	% 58	% 21	% 20
Ez nituzke beste leku batekin ordezkatzuko	% 46	% 25	% 29

Iturria: Egileen elaborazioa.

Adostasunak nagusi izaten jarraitzen badu ere, maila moderatuagoan agertzen da identitate-eskalarakin alderatuta. Biztanleen erdiak bere ingurunea egokiena dela uste du bere jarduerak garatzeko, edo ez lukeela ordezkatzuko beste leku batekin, baina portzentaje esanguratsu bat agertzen da neutro edo desadostasunean. «Ez dago Donostiarekin zein nire auzoarekin alderatu daitekeen lekurik» esaldiak % 34ko adostasuna baino ez du lortzen, eta horrek erakusten du harreman funtzionalago eta eksklusibotasun txikiagoko lotura.

Guztira, datuek erakusten dute donostiarrek atxikimendu sinboliko handia, baina dependentzia praktiko mugatuagoa dutela ingurune urbanoarekiko. Donostia identitate-karga handiko lekua da, baina bizitza-kalitatea bermatzeko edo eguneroko beharrak asetzeko gaitasuna eztabaidagai dago.

5.1.2. Pertzepzio orokorra Donostiako turismoari buruz

Emaitzek erakusten dute donostiarren artean turismoarekiko ikuspegi anbibalentea dagoela. Inkestatutako gehienek aitortzen dituzte turismo-jarduerak sortzen dituen onura ekonomikoak, baina, aldi berean, eragin negatibo garrantzitsuak identifikatzen dituzte etxebizitzan, prezioetan, merkataritza lokalean eta hiri-bizikidetzan (4. taula).

Orokorrean, turismoa tokiko ekonomiaren funtsezko faktoretzat jotzen da: % 53 ados agertu da baieztapen horrekin, % 29 ez ados.

Hala ere, % 30ek soilik uste du turismoa hiriko motor ekonomiko nagusia dela, eta ia erdiak (% 47k) ez datoz bat ideia horrekin. Horrek erakusten du herritarrek balio ekonomikoa aitortzen diotela turismoari, baina ez dutela garapen lokalaren oinarri bakartzat jotzen.

4. taula. Turismoaren eta bere eragin ekonomikoaren balorazio orokorra

Item	Ados	Neutro	Ez ados
Turismoak onura dakar tokiko ekonomiarentzat	% 53	% 18	% 29
Turismo tokiko motor ekonomiko nagusia da	% 30	% 23	% 47
Donostiak turista gehiago erakarri beharko lituzke	% 13	% 10	% 77

Iturria: Egileen elaborazioa.

Hiri- eta gizarte-eraginei buruzko ebaluazioak diagnostiko hori berresten du (5. taula). Herritarren gehiengoak eguneroko bizitzako hainbat dimentsiotan eragin negatiboak antzematen ditu.

5. taula. Turismoaren eraginaren pertzepzioa etxebizitzan, merkataritzan eta espazio publikoan

Dimentsioa	Hautemandako eragina	%	Arazo nagusia
Merkataritza	Ostalaritzaren garestitzea	% 95	Homogeneizazioaren pertzepzioa
Merkataritza	Txikizkako prezioen igoera	% 82	Kontsumo turistikoaren inflazioa
Etxebizitza	Etxebizitza-prezioen igoera	% 91	Presio turistikoaren eragin zuzena
Etxebizitza	Alokairu-eskaintza murrizketa	% 88	Turismo eta bizilekuaren arteko lehia
Espazioa	Pilaketak eta kongestioa	% 90	Hiri-saturazioa
Espazioa	Autoktonoen desplazamendua	% 82	Aisialdi-espazioen galera

Iturria: Egileen elaborazioa.

Merkataritzaren arloan, herritarrek argi ikusten dute kontsumoaren garestitzea turismoarekin lotuta dagoela: % 82k uste du jarduera turistikoak merkataritza txikiko prezioak igo dituela, eta % 95ek dio taberna eta jatetxeen prezioak ere garestitu direla, bereziki eguneroko kontsumoan eragina izanik.

Etxebizitzaren inguruan, iritziek oraindik zorroztasun handiagoa erakusten dute. Herritarren gehiengo zabalak (% 91) turismoari egozten dio erosketa- eta alokairu-prezioen igoera, eta % 88k dio horrek alokairu-bizitokien eskaintza murriztu duela, erabilera turistiko eta bizitza-erabileren arteko lehiaren ideia sendotuz.

Azkenik, espazio publikoaren arloan, saturazioaren pertzepzioa ia unibertsala da. Inkestatutakoen % 90ek uste du turismoak pilaketak eta mugikortasun-arazoak sortzen dituela, eta % 78k adierazten du hiri-espazioaren okupazioa gero eta handiagoa dela helburu turistikoetarako, tokiko biztanleen erabilera ohikoen kaltetan.

Adierazle horien analisi bateratuak erakusten du adostasun zabala dagoela turismoaren ondorio negatiboari buruz hiri-bizitzan. Merkataritza-homogeneizazioaren, etxebizitza eskuragarriaren galera- ren eta espazio publikoaren pilaketaren pertzepzioak diskurtso sozialaren erdigunea hartzen dute, eta turismoaren eztabaida ekonomiatik harago, bizigarritasunaren eta justizia espazialaren esparrura eramaten du.

Laburbilduz, turismoa ekonomikoki errentagarria baina oreka gutxikoa den jardueratzat hartzen da, onura ekonomikoek ez baitituzte kostu sozial eta lurraldekoak konpentsatzen.

5.2. Gobernantzaren eta konfiantza instituzionalaren balorazioa

5.2.1. Turismoaren udal-kudeaketari buruzko iritziak

Inkestaren emaitzek erakusten dute ikuspegi kritiko zabala dagoela Donostiako turismoaren kudea- ketaren inguruan. Herritarrek parte-hartze handiagoa eskatzen dute hiriaren estrategia turistikoaren definizioan (6. taula).

Turistifikazioa eta gobernantza gatazkatsua Donostian: hiritarren ikuspegia eta bizigarritasunaren erronka*Julen Izagirre-Olaizola, Imanol Mozo Carollo, Xavier Mínguez Alcaide*

Inkestatutakoen %86,7k uste du herritarrek kontsultatu behar direla turismoaren inguruko estrategiari buruz, eta soilik %5,3 agertu da ez ados. Adostasun zabal horrek erakusten du desfekzio maila handia dagoela egungo erabaki-hartze prozesuekin, eta gizarte-inplikazioaren nahia argia dela turismoaren gobernantzan.

Bestalde, %78,1ek adierazi du gaur egun turismoan gehiago pentsatzen dela tokiko herritarrengan baino, eta horrek erakusten du oreka falta dagoela onura ekonomikoaren eta biztanleen ongizatearen artean. Bisitaria biztanlearen gainetik lehenestea herritarren ezinegonaren ardatz nagusietako bat da ikerketan.

Era berean, herritar askok eskatzen dute turismoa espazioan eta denboran deszentralizatzea. Inkestatutakoen erdiak baino gehiagok adostasuna agertu du turismoa jendez gainezka ez dauden eremu eta garaietara bideratzearen alde.

6. taula. Turismoaren udal-kudeaketari buruzko iritzia

Item	Ados	Neutro	Ez ados
Turismo-estrategiari buruz herritarrei galdetu behar zaie	% 87	% 8	% 5
Turismoan gehiago pentsatzen da tokiko biztanleetan baino	% 78	% 11	% 11
Turismoa masifikatuta ez dauden eremuetara bideratu behar da	% 52	% 26	% 22
Turismoa masifikatuta ez dauden garaietara bideratu behar da	% 54	% 26	% 20

Iturria: Egileen elaborazioa.

Guztira, emaitza hauek erakusten dute herritarren ikuspegi oso kritikoa dagoela turismoaren egungo kudeaketa-orientazioaren aurrean, eta planifikazio parte-hartzaile eta lurralde-oreka handiagoaren eskaera esplizitua dagoela. Herritarren artean zabaldutako irudiaren arabera, Udalak turismo-sektorearen interesak herritarren interesen aurretik lehenesten dituenaren ideia atal osoaren zeharreko ondorio nagusizat har daiteke.

5.2.2. Udal gobernuarekiko eta hautetsiekiko konfiantza

Konfiantza politikoaren adierazleek erakusten dute sinesgarritasun instituzional oso baxua dagoela turismoaren kudeaketan (7. taula). Blokeko item guztietan, biztanleen %70etik gora agertu da ez ados Udalarekiko edo bere ordezkari politikoekiko konfiantza adierazten duten baieztapeneekin.

Inkestatutakoen %7,7k soilik dio udal gobernuaren turismo-erabakietan konfiantza duela, eta %73,2k kontrakoa adierazi du. Hautetsi politikoekiko konfiantza ere oso txikia da (%10,9), eta %72,7k ez du uste haien erabakiak egokiak direnik.

Antzeko emaitzak agertzen dira udal gobernuak turismoari dagokionez zuzen jokatzen duela galdetzean (%11,6 ados), eta baita herritarren interesak defendatzen dituela galdetzean ere (%15,8 ados).

7. taula. Turismoaren udal-kudeaketarekiko konfiantza politikoa

Item	Ados	Neutro	Ez ados
Udal gobernuaren turismo-erabakietan konfiantza dut	% 8	% 19	% 73
Udal hautetsiek erabaki egokiak hartzen dituzte	% 11	% 16	% 73
Udal gobernuak zuzen jokutzen du turismoaren arloan	% 12	% 16	% 72
Udal gobernuak komunitatearen interesak babesten ditu	% 16	% 13	% 71

Iturria: Egileen elaborazioa.

Adierazle horien koherentziak erakusten du turismoaren gobernantza-ereduarekin lotutako zilegitasun politikoaren krisia dagoela. Herritarren iritziz, Udala ez da gai haien kezkak behar bezala jasotzeko, eta sektore turistikoaren hazkundean zentratzen dela iruditzen zaie, ondorio negatiboak arautu eta kontrolatzearen kaltetan.

Laburbilduz, konfiantza instituzionalaren blokeak erakusten du herritarren eta administrazioaren arteko urruntasun estrukturala: sinesgarritasun baxua, parte-hartze eraginkorrerako kanal eskasak, eta ordezkaritza-sentsazio urria dira nagusi.

5.2.3. Tasa turistikoaren ezarpenari buruzko jarrerak

Turismoarekin lotutako politika publikoen artean, tasa turistikoaren ezarpena da adostasun sozial handiena sortzen duen proposamenetako bat. Inkestatutakoen %78,6 neurriaren alde agertu dira, eta %11k kontrakoa adierazi du (8. taula).

8. taula. Tasa turistikoaren ezarpenarekiko hiritarren jarrera

Item	Ados	Neutro	Ez ados
Tasa turistikoa ezartzearen alde nago	% 79	% 10	% 11

Iturria: Egileen elaborazioa.

Neurri horren onarpen zabala lotuta dago herritarren artean dagoen turismoaren ondorioei buruzko ezingon iraunkorarekin, eta onurak era bidezkoago batean banatzeko eskaerarekin.

Donostiako tasa turistikoaren inguruko eztabaidak ez du soilik ikuspegi fiskala, baizik eta hiri-justiziaren inguruko eztabaida zabalago baten parte da: norentzat dira turismoaren onurak eta noren gain geratzen dira kostuak.

Ikuspegi horretatik, tasa turistikoaren aldeko babesa herritarren erantzukidetasun-eskaera gisa interpreta daiteke.

Neurria turismoaren eragin ekonomiko eta sozialak orekatzeko tresna gisa ulertu ohi da, sortutako diru-sarreraren zati bat etxebizitzan, zerbitzuetan eta espazio publikoan sortzen diren kanpo-eragin negatiboak konpentsatzera bideratzeko aukera emanez.

Turistifikazioa eta gobernantza gatazkatsua Donostian: hiritarren ikuspegia eta bizigarritasunaren erronka*Julen Izagirre-Olaizola, Imanol Mozo Carollo, Xavier Mínguez Alcaide*

Horrenbestez, tasa turistikoaren aldeko babesak ez da turismoaren aurkako jarrera bat, baizik eta kudeaketa-eredu bidezko, garden eta iraunkorrago baten aldeko aldarria.

Donostiako kasuaren interpretazioan, tasa turistikoa zilegitasun instituzionala indartzeko beharreak ere lotzen da.

Udal-politikekiko mesfidantza orokortuaren testuinguruan, gehiengo sozial batek instituzioek proposatutako neurri baten alde egiteak aukera eskaintzen du herritarren eta administrazioaren arteko harremana berreskuratzeko.

Laburbilduz, tasa turistikoa konfiantza-giro eskasean sortutako adostasun-mekanismo gisa agertzen da.

Donostiako herritarrentzat, turismoaren onurak berriro banatzeko eta haren kostu urbanoak arintzeko bide zehatz bat da, eta aldi berean kudeaketa instituzionalaren logika aldatzeko eskaera ere bada: gobernantza parte-hartzaile eta arduratsuago baten aldeko deia.

5.3. Turismoaren eragin psikosozialak eta hiri-bizitzaren kalitatea

Inkestaren dimentsio psikosozialei buruzko emaitzek aukera ematen dute ulertzeko turismoaren kudeaketari buruzko pertzepzio kritikoak (aurreko ataletan deskribatuak) nola islatzen diren bizitzakalitatearen, ongizate emozionalaren eta hiri-bizikidetzaren balorazioetan.

Beraz, turismoa ez da soilik fenomeno ekonomiko edo instituzional gisa ikusten, baizik eta hiri-bizitzeko esperientzia zuzenean eragiten duen faktore gisa ere.

5.3.1. Bizitza-kalitatea eta bizigarritasunaren pertzepzioa

Bizitza-kalitateari buruzko pertzepzioek erakusten dute turismoaren eraginak balorazio orokorrean negatiboak direla herritarren ongizateari dagokionez.

Gutxiengo batek bakarrik uste du turismoak bere ingurunea hobetu duela, eta gehiengoak eragin neutroak edo zuzenean negatiboak aipatzen ditu hainbat esparrutan (9. taula).

9. taula. Turismoaren eragina bizitza-kalitatean: herritarren pertzepzioa

Item	Ados	Neutro	Ez ados
Nire bizitza-kalitatea turismoari esker hobetu da	% 6	% 16	% 78
Nire auzoa bizitzeko leku erakargarriago bihurtu da turismoari esker	% 19	% 18	% 63
Turismoarekin aisialdi- eta jarduera-eskaintza hobetu da	% 14	% 20	% 66
Hiriaren ekonomia turismoari esker indartu da	% 41	% 25	% 34

Iturria: Egileen elaborazioa.

Inkestatutakoen % 77,7k ez du onartzen turismoak bere bizitza-kalitatea hobetu duenik, eta % 62,8k ukatu egiten du bere auzoa bizitzeko desiragarriagoa bihurtu denik turismoaren ondorioz. Halaber,

Turistifikazioa eta gobernantza gatazkatsua Donostian: hiritarren ikuspegia eta bizigarritasunaren erronka

Julen Izagirre-Olaizola, Imanol Mozo Carollo, Xavier Mínguez Alcaide

aisialdi-eskaintzari buruzko iritzietan ere balorazio negatiboak nagusi dira (%65,5 ez ados). Ekonomia-bultzadari buruzko itemean bakarrik ageri da jarrera apur bat baikorra: %41,1 ados eta %33,6 ez ados.

Horrek adierazten du turismoaren onurak gehienbat alderdi ekonomikoan hautematen direla, eta, aldiz, eguneroko bizitzan eta hiriaren bizigarritasunean eragin negatiboak nagusitzen direla.

Orokorrean, eskala honek erakusten du ongizatearen galera dagoela turismoaren egungo ereduarekin lotuta: espazio-saturazioak, prezioen presioak eta bizitegi-ehunaren eraldaketak bizitza-kalitatearen narriaduran eragin zuzena dute.

Horren ondorioz, bizigarritasuna eta bizi-kalitatea kaltetutzat jotzen dira herritarren pertzepzioan.

5.3.2. Turismoaren estresa eta ondoez emozionala

Turismoaren estresaren eskalak fenomenoaren dimentsio emozionala sakontzen du, eta erakusten du turismoa biztanle askorentzat deserosotasun, haserre eta neke sozial iraunkorraren iturri bihurtu dela.

Erantzunek ongizate emozionalaren galera nabarmena erakusten dute (10. taula): inkestatutakoek %58,9k adierazi du turismoagatik deseroso sentitu dela, eta %56,8, estresatua. Herritarren erdiak baino gehiagok (%52,5) aitortu du turismoaren ondorioz haserrea sentitu duela, eta %52ak uste du ezin duela ezer egin haren ondorioen aurrean.

Aitzitik, gutxiengo batek bakarrik dio turismoarekin ondo moldatu dela edo sortzen dituen eragozpenak kontrolatu dituela.

Eraitza horiek erakusten dute nekadura turistikoaren sintomak gero eta agerikoagoak direla: nekea, narritadura eta kontrol-falta uztartzen dituen egoera iraunkorra, turismoaren presio jarraituak eguneroko espazioan eta denboran eraginda.

10. taula. Turismoaren eraginak bizitza-kalitatean: herritarren pertzepzioa

Item	Ados
Turismoagatik noizbait deseroso sentitu da	% 59
Turismoaren ondorioz ezin izan ditu garrantzitsuak diren gauzak egin	% 42
Turismoagatik estresatua sentitu da	% 57
Turismoak alde positiboan eragin diola uste du	% 9
Turismoaren ondorioen aurrean ezer egin ezinik sentitu da	% 52
Turismoarekin ondo moldatu dela uste du	% 22
Turismoaren ondorioz haserrea sentitu du	% 53
Turismoari lotutako zailtasunek bere gaitasuna gainditzen dutela uste du	% 38

Iturria: Egileen elaborazioa.

Turistifikazioa eta gobernantza gatazkatsua Donostian: hiritarren ikuspegia eta bizigarritasunaren erronka*Julen Izagirre-Olaizola, Imanol Mozo Carollo, Xavier Mínguez Alcaide*

5.3.3. Sintesia

Turismoak onura ekonomiko aitortuak sortzen ditu, baina, aldi berean, bizigarritasuna murrizten eta hiri-estresa handitzen ditu; horrek herritarren harreman emozionala eraldatzen du beren ingurunearekin.

Adierazle multzoak erakusten du gizartean higadura handia sortzen duen turismo-eredua dagoela, interes orokorretik urrun ikusten dena eta zaila dena kontrolatzen.

Horrenbestez, eragin psikosozialak ez dira bigarren mailako ondorio hutsak, baizik eta turismoaren inguruko gatazka urbanoaren adierazpen zuzena: bisitatzeko sustatzen den hiriaren eta bizitzeko nahi den hiriaren arteko tentsioa.

5.4. Sintesia eta interpretazio orokorra

Emaitzen irakurketa orokorrak ikuspegi konplexu baina koherentea eskaintzen du donostiarrek turismoa eta haren ondorio urbanoak nola hautematen dituzten ulertzeko. Oro har, turismoa jarduera ekonomikoaren eta nazioarteko ikusgarritasunaren iturri garrantzitsua dela aitortzen da, baina, aldi berean, hiri-orekaren haustura, gizarte-ongizatearen galera eta bizigarritasunaren murrizketa eragiten dituen faktoretzat ere jotzen da.

Lehenik, datuek erakusten dute hazkunde turistikoaren onarpen mugatua dagoela. Herritarrek baloratzen dute turismoak ekonomiari egiten dion ekarpena, baina gehienek uste dute Donostiak bere karga-ahalmena gainditu duela, eta turismoak ez duela gehiago hobetzen ez bizi-kalitatea ez ongizate lokala. Diagnostiko hori sendotu egiten da udal-kudeaketari buruzko blokeetan jasotako arau-, deszentralizazio- eta kontrol-eskariarekin: herritarrek ez dute turismoa bera baztertzen, baizik eta haren kudeaketa-modua.

Bigarrenik, konfiantza instituzionalaren adierazleek erakusten dute haustura sakona dagoela herritarren eta administrazioaren artean. Inkestatutako gehiengo zabalak ez du konfiantzarik ez erabaki politikoetan ez ordezkari publikoetan, eta gardentasun- eta parte-hartze-faltatzat jotzen du turismo-politikak definitzeko prozesua, interes ekonomikoen menpe dagoela uste baitu. Testuinguru horretan ulertu behar da tasa turistikoaren onarpen handia: neurri horrek justizia urbanoaren sinbolo gisa funtzionatzen du, deserosotasun soziala kudeaketa bidezkoago eta iraunkorrago batera kanalizatzeko gai den tresna gisa.

Azkenik, dimentsio psikosozialek agerian uzten dituzte konfiantza-faltaren ondorio pertsonal eta kolektiboak. Turismoa estresa, narritadura eta eguneroko bizitzaren gaineko kontrol-galera sentimenduekin lotzen da, bereziki saturazio handiena duten auzoetan. Nekadura turistikoaren sentsazioa eta hiriak bizigarritasuna galtzen duela hautemateak baieztatzen dute gatazkaren jatorria ez dela soilik ekonomikoa edo politikoa, baizik eta emozionala eta erlazionala ere: herritarren bizitzeko, hautemateko eta beren ingurunearekin identifikatzeko moduan eragiten du.

Laburbilduz, emaitzek erakusten dute turismo-ereduak bere legitimazio soziala agortu duela. Herritarrek balio ekonomikoa aitortzen diote, baina eskatzen dute gobernantza-ereduaren berrikuspen sakona: parte-hartzaileagoa, lurralde-orekatuagoa eta gizarte-arduratsuagoa. Ondorioz, Donostiako turismoaren iraunkortasuna ez da jada bisitari-kopuruaren edo errentagarritasunaren arabera neurtzen, baizik eta bizikidetza, bizigarritasuna eta ongizate kolektiboa bermatzeko gaitasunaren arabera.

6. EZTABAIDA

Emaitza enpirikoek berretsi egiten dute marko teorikoan planteatutako hipotesia: Donostiako turistifikazioa ez da soilik bisitarien hazkunde kuantitatibo baten ondorio, baizik eta merkatuaren logikak gidatutako hiri-espazioaren eraldaketa egiturazko prozesu bat, plangintza publiko koherente baten orde.

6.1. Errotzea, identitatea eta bizigarritasunaren galera

Ikerketaren emaitzek berretsi egiten dute herritarrek Donostiarekin duten lotura afektiboaren indarra, baina baita lotura sinbolikoaren eta eguneroko bizipenaren arteko haustura ere.

Identitate-eskalako adostasun-maila altuek erakusten dute hiriak oraindik ere erreferente emozional eta lurraldeko funtzioa betetzen duela gehiengo handi baten artean.

Hala ere, identifikazio sinboliko horrek ez du bermatzen asebetetze funtzional bera. Lekuarekiko dependentziari buruzko emaitzek balio moderatuagoak erakusten dituzte; horrek iradokitzen du, herritarrek «Donostia beraiena» sentitzen duten arren, gero eta zailagoa zaiela hiriko bizitza materialaren baldintzetan beren burua ezagutzea. Prezioen igoerak, etxebizitzaren presioak edo espazio publikoaren saturazioak dualitate hori elikatzen dute «lekuaren zentzuaren galera» deitu izan den fenomenoaren ildotik, merkantilizazio urbanoaren testuinguruetan (Milano *et al.*, 2023; O'Sullivan, 2020).

Turismoa, balorizazio eta ikusgarritasun globalaren motor bihurtuta, eguneroko eszenatokiak kontsumo-espazio bihurtzen ditu; horrela, bizitzaren esperientzia gero eta ahulago eta negoziatuago bilakatzen da. Emaitzek ez dute hiriaren aurkako jarrerarik erakusten, baizik eta gatazkan dagoen ingurune batean bizitzaren ezinegona: bertan jarraitzeko eskubidea zalantzazkoa bihurtzen da, eta identitate lokala aldaketen gainetik mantentzen da.

Testuinguru horretan, Donostiarekin harremana anibalentea da: aldaketaren aurrean identitate erresistentea. Harveyk (2012) gogorarazten duen bezala, hirirako eskubidea ez da soilik haren espazioak erabiltzea, baizik eta haien ekoizpenean parte hartzea. Herritarren atxikimendu sendoa eguneroko erresistentzia modutzat interpreta daiteke, bizitza lokalari atzerriko logikek egindako espazioaren apropiazioaren aurrean.

6.2. Gobernantza, mesfidantza eta birbanaketa-eskaria

Turismoaren kudeaketari eta konfiantza instituzionalari buruzko emaitzek erakusten dute distantzia nabarmena dagoela herritarren eta tokiko administrazioaren artean, eta hori beste hiri-turistifikazio testuinguru batzuetan ere ondo dokumentatu izan da (Del Romero Renau, 2018; Novy eta Colomb, 2017).

Donostiako kasuan, haustura hori ez da turismoaren aurkako jarrera orokor batean agertzen, baizik eta hura posible egin duen gobernantza-ereduaren kritika batean. Herritarren pertzepzio nagusia da turismo-politika merkatuaren logikak gidatzen duela, lehiakortasuna eta kanpo-proiektzioa lehene-tsiz, eta bizilagunen kezkak bigarren mailan geratzen direla.

Diagnosticoko hori bat dator Bramwell eta Lanek (2011) deskribatutako «gobernantza hibridoaren» ereduarekin, non administrazioek, enpresek eta herritarrek formalki erantzukizunak partekatzen dituzten, baina boterearen benetako banaketarik eta norabide publiko argirik gabe. Testuinguru horre-

Turistifikazioa eta gobernantza gatazkatsua Donostian: hiritarren ikuspegia eta bizigarritasunaren erronka*Julen Izagirre-Olaizola, Imanol Mozo Carollo, Xavier Mínguez Alcaide*

tan, tokiko erakundeek bitartekaritza-funtzioa betetzen dute, ez kontrolarena, eta hiria helmuga gisa irudikatzea lehenesten dute iraunkortasun sozialaren gainetik. Inkestaren emaitzek argi erakusten dute legitimitate instituzionalaren krisi hori.

Konfiantza politikoa ageri da Donostiako turismo-ereduaren dimentsiorik higatuenetako bat gisa. Fainsteinen (2018) arabera, «hiri justuaren paradoxa» aipatu daiteke: iraunkortasuna eta parte-hartzea aldarrikatzen dituen diskurtso publikoa, baina errentagarritasunean oinarritutako jardun instituzionalekin batera existitzen dena. Diskurtsoaren eta ekintzaren arteko desorekak elikatzen du udal gobernuaren sektore turistikoaren interesen menpe dagoelako pertzepzioa, eta horrek herritarren ezintasuna eta gardentasun falta areagotzen ditu (Dredge eta Jamal, 2015).

Konfiantza instituzionalaren galera honek iradokitzen du turismo-ereduaren iraunkortasuna ez dela bisitarien kopuruaren araberakoa bakarrik, baizik eta gobernuaren eta herritarren arteko harremanaren kalitatearen araberakoa.

Testuinguru horretan, tasa turistikoa, biztanleen % 80ren babesarekin, justizia urbanoaren eta elkarren arteko erantzukizunaren sinbolo bihurtzen da. Bere onarpenak turismoaren kostu sozialak aintortzea eta onuren zati bat birbanatzeko bidea ekarriko luke. Harveyk (2008) proposatutakoaren ildotik, «hiri birbanatzaile» baten adierazpide gisa interpreta liteke, turismoaren diru-sarrerak bizigarritasuna, etxebizitza eta tokiko zerbitzuak indartzeko baliabide bihurtzeko gai dena.

Beraz, ez da turismoaren aurkako jarrera orokorra, baizik eta bisitari, bizilagun eta instituzioen arteko itun sozial berri baten bilaketa.

Herritarren desadostasuna ez dago turistaren presentzian, baizik eta turismoa kudeatzeko eta banatzeko moduetan. Azken finean, gardentasun handiagoa, parte-hartze eraginkorragoa eta hirian bizi-tzearen esperientzian oinarritutako gobernantza-eredu berria aldarrikatzen da.

6.3. Ezinegon psikosoziala eta nekadura turistikoa

Bizi-kalitatearen eta estres turistikoaren eskalek argi erakusten dute turistifikazioaren eraginak dimentsio ekonomiko eta espazialek harago doazela, esperientzia urbanoaren maila intimoenera iritsiz. Inkestatutako herritarren bi herenek baino gehiagok hautematen dute turismoak beren eguneroko ongizatea murriztu duela. Pertzepzio horiek ez dira bisitari-kopuruaren gehiegitasunera mugatzen, baizik eta ingurune biziaren gaineko kontrol-galeraren sentimendu sakonago batera, eta hori beste hiri turistiko batzuetan atzemandako ezinegon urbanoaren azterketekin bat dator (Niewland eta Del Romero Renau, 2021; Sequera eta Nofre, 2018;).

Cócola-Gant-ek (2016) ohartarazi bezala, turistifikazioak logika arrotza barneratzen du: bizikidetzaren bora kontsumo-denbora bihurtzen du. Horrela, eguneroko bizi-tza etenda geratzen da hirian pasabidez dabiltzanen erritmo eta erabileren eraginez, eta horrek etengabeko talkak sortzen ditu bizi-tako hiriaren eta bisitatutako hiriaren artean.

Desoreka tenporal eta sinboliko horrek azaltzen du Donostian sortzen den «nekadura turistikoa», Huete eta Mantecón (2018) deskribatutakoaren antzekoa. Ez da soilik fluxuen gainkarga fisikoa, baizik eta neke emozionala, lasaitasuna, anonimotasuna edo pertenezia aurkitzeko ezintasunetik datorrena (Jordan *et al.*, 2021). Masifikazioa galera handiago baten metafora bihurtzen da: hiriaren beraren galera, babesleku eta topaleku izateari uzten dion neurrian.

Atzemandako ezinegonak, gainera, dimentsio politikoa ere badu. Harveyren (2012) hitzetan, alienazio urbanoak ez du jatorria soilik espazioaren merkantilizazioan, baizik eta herritarrek espazio hori ekoizteko prozesuetan parte hartzeko ezintasun kolektiboan ere. Donostiako estres turistikoa bikoiz-

tasun horretatik elikatzen da: ingurunearen saturazio materialetik eta parte-hartze eta erantzukidetasun mekanismo eraginkorrik ez egotetik.

Hala ere, ezinegon hori gizarte-alarmatzat ere interpreta daiteke: eredu turistikoak bere mugak gainditu dituelako seinale. Turismoaren ondorioei buruzko sentsibiltate sozial gero eta handiagoak erakusten du herritartasun aktiboa, turismoari uko egiten ez diona, baina bere eraldaketa eskatzen duena. Zentzu horretan, nekadura turistikoa ez da soilik kudeaketa-arazoa, baizik eta hiria bertan bizi direnen esperientzia emozionaletik berriro pentsatzeko aukera ere bada.

6.4. Turistifikazioa eta hiri-ereduaren inguruko gatazka

Emaitzek aukera ematen dute Donostiako kasua tokiko laborategi gisa ulertzeko, non ekonomia, gobernantza eta eguneroko bizitza uztartzen diren hiri-tentsioetan.

Turistifikazioa ez da soilik sektore turistikoaren hedapena, baizik eta hiri-ereduaren beraren berrantolaketa, balorizazioaren eta ikusgarritasun globalaren logikan oinarrituta. Erabilera-balioaren eta truke-balioaren arteko kontraesanaren adierazpen gisa interpreta daiteke (Lefebvre, 1968), non hiri-espazioa ondasun urria bihurtzen den, funtzio, eragile eta denbora ezberdinen arteko lehian.

Donostian, gatazka hori islatzen da herritarren ingurunearen gaineko identifikazio sendoaren eta lehiakortasun turistikoa bizigarritasunaren gainetik lehenesten duen kudeaketa-markoaren arteko talkan.

Datuen arabera, herritarrek atxikimendu sinboliko handia erakusten dute, baina estresarekin, mesfidantzarekin eta kontrol-galerarekin batera. Konbinazio horrek azaltzen du Sequera eta Nofrek (2018) «turistifikazioaren fase heldua» deitzen dutena: eragin material eta emozional metatuek erresistentzia zibilak eta birbanaketa-eskariak pizten dituzten unea.

Tasa turistikoaren aldeko babesa eta kudeaketa publikoarekiko kritika ez dira, beraz, turismoaren aurkako jarrerak, baizik eta oreka berria bilatzeko borondatearen adierazpenak.

Herritarrek ez dute turismoaren garrantzi ekonomikoa zalantzan jartzen, baizik eta hiri-ereduaren definizioan duen pisu gehiegizkoa. Novy eta Colomb-ek (2017) proposatutakoaren ildotik, turismoaren gobernantza gatazka politikoaren espazio bihurtzen da, publikoaren eta pribatuaren, komunitatea eta merkantilaren arteko mugak etengabe negoziatzen diren eremua.

Turismoaren iraunkortasuna ez da jada fluxuen kudeaketaren edo lehiakortasun ekonomikoaren araberako soilik neurtzen, baizik eta bizitza urbanoaren baldintzak berriz ekoizteko gaitasunaren arabera: etxebizitza, atsedena, pertenezia, parte-hartzea eta konfiantza.

Dimentsio horiek mehatxatuta daudenean, turismoa aukera ekonomiko izatetik gatazka sozialaren faktore bihurtzen da.

Laburbilduz, emaitzek indartu egiten dute Donostiako turismoaren kudeaketa gobernantzaren arazo bat dela, karga-ahalmenaren kontua baino gehiago.

Erronka nagusia da eredu instituzional bat artikulatzea, gai izango dena hiru eskakizun uztartzeko: (1) helmuga-hiriaren bideragarritasun ekonomikoa eta jarduera turistikoaren jarraipena; (2) hiri-iraunkortasuna, hau da, erabilera turistikoaren eta bizitza erresidentzialaren arteko oreka; eta (3) justizia espaziala eta legitimazio demokratikoa, herritarren parte-hartze eraginkorrean oinarrituta.

Tentsio hirukoitz horrek erakusten du hiri-eredu bat, merkatuaren presioen, bizigarritasun-eskarien eta iraunkortasun-beharren artean aldi berean kokatua.

Turistifikazioa eta gobernantza gatazkatsua Donostian: hiritarren ikuspegia eta bizigarritasunaren erronka*Julen Izagirre-Olaizola, Imanol Mozo Carollo, Xavier Mínguez Alcaide*

Horri aurre egiteko, turismoaren kudeaketa sektorialetik hiri-politika integratura igaro behar da, non etxebizitza, espazio publikoa eta parte-hartzea egongo diren eztabaidaren erdigunean.

7. ONDORIOAK

Egindako analisiak baieztatzen du Donostiako turistifikazioa egiturazko fenomeno dela, eta hiriarren egitura ekonomikoari ez ezik, haren gobernantza-moduari ere eragiten diola. Nabarmen agertzen da hiri-espazioaren eta herritarren, merkatuaren eta erakundeen arteko harremanen berrantolaketa-prozesu bat.

Donostiako turismoaren kudeaketa «gatazkazko gobernantza» (*contested governance*) izaera izateagatik bereizten da, kontrol-neurriak eta lehiakortasun-diskurtsoak batera existitzen direlako, inprobi-sazio eta zatiketa instituzionalaren pertzepzioa sortuz.

Sustapen-politiken eta arautze-politiken arteko koherentzia faltak desoreka eragiten du helburu ofizialen (iraunkortasuna, oreka, bizikidetzeta) eta bizilagunen eguneroko esperientziaren artean, bereziki presio turistiko handiena duten auzoetan. Desoreka horrek legezkotasun eta legitimazio instituzionalaren galera dakar.

Hala ere, konfiantzaren higadura horrek ez du esan nahi turismoaren aurkako jarrera ireki bat dagoenik. Herritarrek argi adierazten dute erregulazio handiagoaren, birbanaketaren eta parte-hartzearen beharra.

Tasa turistikoaren, lizentzia-mugen eta fluxuen deszentralizazioaren aldeko gehiengo sozialak erakusten du Donostiako gatazka turistikoa ez dela bisitarien aurkako jarrera batean oinarritzen, baizik eta hiria bere oreka propioa kudeatzeko moduan.

Ikuspegi konparatuan, Donostiak antzeko ezaugarriak partekatzen ditu Europako beste hiri ertain bartzuekin, non erdigune historikoen saturazioak eta etxebizitzaren presioak eztabaidak piztu dituzten hiri-espazioaren funtzio sozialari eta haren arauketaren erantzukizun publikoari buruz.

Kasu guztietan, erronka teknikoa baino, politikoagoa da: nor den hiriaren gaineko erabakiak hartzen dituen eta zein printzipioren arabera banatzen diren turismoaren kostuak eta onurak. Donostiaren kasuan, horrek hiri-hitzaurren berri bat eraikitzea eskatzen du, turismoaren kudeaketari legitimotasuna itzuliko diona eta bizilagunen, administrazioaren eta sektore pribatuaren arteko harremanak berriro orekatuko dituen.

Hala eta guztiz ere, azterketak zenbait muga ere baditu. Inkestak une jakin batean jasotako pertzepzioak biltzen ditu eta iritziak islatzen ditu, ez eragin objektiboak. Beraz, emaitzak 2024ko turismoaren giro sozial eta politikoaren argazki gisa ulertu behar dira, ez eragin neurgarrien neurketa gisa.

Gainera, bigarren mailako iturriak heterogeneoak eta ez beti alderagarriak direnez, kontu handiz interpretatu behar dira joerak. Hala ere, bildutako material enpirikoak oinarri sendoa eskaintzen du pertzepzio sozialek politika turistikoarekin nola elkarreragiten duten ulertzeko eta gobernantza lokalaren legitimotasuna ebaluatzeko.

Emaitzen arabera, hainbat ondorio praktiko atera daitezke kudeaketa publikoarentzat.

Lehenik eta behin, beharrezkoa da gobernantza integratuago eta parte-hartzaileago baterantz aurrera egitea, Turismoa, Hirigintza eta Etxebizitza arloak koordinatuz. Era berean, bizilagunekin, elkarrekin eta eragile ekonomikoekin elkarriketa egonkorreko espazioak sortzeak lagundu lezake konfiantza instituzionala berreraikitzen eta erabakiei legitimazio handiagoa ematen.

Bigarrenik, gardentasuna eta komunikazio publikoa indartzea funtsezkoa da.

Herriarren artean hartutako neurrien inguruko ezjakintasunak erakusten du turismoaren kudeaketak ezin duela arauketa tekniko hutsera mugatu: informazio irisgarria eta kontu-ematea behar ditu lagun.

Arlo ekonomiko eta lurraldekoan, berriz, tasa turistikoaren finkapena lehentasunezko tresna gisa ageri da. Haren babes sozial zabala ikusita, tasa horrek finantzaketa-iturri izateaz gain birbanaketa eta konpentsazio mekanismo gisa ere jardun lezake, bildutako zati bat etxebizitza eskuragarria, espazio publikoaren mantentzera eta bizikidetz-polituketara bideratuz.

Era berean, ostatuarekin lotutako arautzeak behin-behineko moratorietatik planifikazio egonkor baterantz egin beharko luke, muga espazial argiekin eta administrazio arteko koordinazioarekin.

Beste hiri europar batzuen esperientziek erakusten dute zonifikazioan eta kontrol eraginkorrean oinarritutako araudiek iraunkortasun handiagoa eta gatazka gutxiago sortzen dituztela neurri erreaktiboek baino.

Azkenik, jarduera turistikoaren dibertsifikazioak lagun dezake erdiguneko presioa arintzen eta turismo orekatuagoa eta inklusiboagoa sustatzen.

Lan honek baditu berezko zenbait muga, batez ere ikuspegi deskriptiboari eta inkestaren izaera zeharkakoari lotuak; izan ere, datuek une jakin bateko pertzepzio soziala islatzen dute. Etorkizunean, komenigarria litzateke ikuspegi longitudinala txertatzea, denboran zehar herriarren jarrerak nola aldatzen diren eta ezarritako neurri arautzaileen eraginkortasuna zein den aztertzeko. Halaber, balio erantsia izango luke Donostia beste hiri ertain batzuekin alderatzeak, baita ikuspegi kualitatibo sakonagoak erabiltzeak ere, turistifikazioaren esperientzia eguneroko praktiketan nola txertatzen den hobeto ulertzeko. Ikerketa-ildo osagarri gisa, interesgarria litzateke etorkizunean turistak beraiek ere inkestatzea, masifikazioari eta hiriguneko bizigarritasunari buruz duten pertzepzioa ezagutzeko. Ildo horiek garatzeak turismoaren gobernantza ulertzeko ikuspegi integratuagoa emango luke, eta ikerketaren, politika publikoaren eta herriarren arteko elkarriketa sendotzen lagunduko luke.

8. BIBLIOGRAFIA

- Aalbers, M. B. (2020). Financial geography II: Financial geographies of housing and real estate. *Progress in Human Geography*, 44(2), 338-347. <https://doi.org/10.1177/0309132519850912>
- Aguado, I., & del Campo, J. (2020). El fenómeno Airbnb en Donostia-San Sebastián: ¿un modelo de economía colaborativa?. *Ciudad y Territorio Estudios Territoriales*, 52(206). <https://doi.org/10.37230/CyTET.2020.206.08>
- Ajuntament de Barcelona (2017). *Strategic Tourism Plan*. Ajuntament de Barcelona. https://ajuntament.barcelona.cat/turisme/sites/default/files/barcelona_tourism_for_2020.pdf
- Ashworth, G., eta Page, S. J. (2011). Urban tourism research: Recent progress and current paradoxes. *Tourism Management*, 32(1), 1-15. <https://doi.org/10.1016/j.tourman.2010.02.002>
- Donostiako Udala (2024). Aprobada la regulación que limitará a 25 personas los grupos de visitas guiadas. <https://www.donostia.eus/home.nsf/0/F9B6F7F2807FEA50C1258B240039C5F8?OpenDocument&idioma=cas>
- Benitez-Aurioles, B., eta Tussyadiah, I. (2020). What Airbnb does to the housing market. *Annals of Tourism Research*, 90, 103108. <https://doi.org/10.1016/j.annals.2020.103108>

Turistikazioa eta gobernantza gatazkatsua Donostian: hiritarren ikuspegia eta bizigarritasunaren erronka

Julen Izagirre-Olaizola, Imanol Mozo Carollo, Xavier Mínguez Alcaide

- Blázquez-Salom, M., Cladera, M., eta Sard, M. (2023). Identifying the sustainability indicators of overtourism and undertourism in Majorca. *Journal of Sustainable Tourism*, 31(7), 1694-1718. <https://doi.org/10.1080/09669582.2021.1942478>
- Boekema, J. (2018). *Tourism governance in Amsterdam*. Wageningen University & Research. <https://edepot.wur.nl/459282>
- Bramwell, B., eta Lane, B. (2011). Critical research on the governance of tourism and sustainability. *Journal of Sustainable Tourism*, 19(4-5), 411-421. <https://doi.org/10.1080/09669582.2011.580586>
- Cócola-Gant, A. (2016). Holiday Rentals: The New Gentrification Battlefront. *Sociological Research Online*, 21(3), 112-120. <https://doi.org/10.5153/sro.4071>
- Cócola-Gant, A. (2019). Tourism gentrification. In J. Mosedale (Ed.), *The political economy of tourism* (pp. 59-72). Channel View Publications.
- Cócola-Gant, A., eta Gago, A. (2021). Airbnb, COVID-19 and housing dispossession in tourist cities. *Tourism Geographies*, 23(3), 501-507. <https://doi.org/10.1080/14616688.2021.1901879>
- De la Calle-Vaquero, M., García-Hernández, M., eta Mendoza de Miguel, S. (2021). Urban Planning Regulations for Tourism in the Context of Overtourism. Applications in Historic Centres. *Sustainability*, 13(1), 70. <https://doi.org/10.3390/su13010070>
- Del Romero Renau, L. (2018). Tourism gentrification in contemporary metropolises: Causes, patterns and impacts. *Urban Science*, 2(3), 79. <https://doi.org/10.3390/urbansci2030079>
- Dredge, D., eta Jamal, T. (2015). Progress in tourism planning and policy: A post-structural perspective on governance. *Tourism Management*, 51, 285-297. <https://doi.org/10.1016/j.tourman.2015.06.002>
- Erauskin-Tolosa, A., Etxezarreta-Etxarri, A., & Izagirre-Olaizola, J. (2021). The sharing economy in the tourist accommodation sector and its effect on the residential market: A bibliometric and content analysis. *Journal of Tourism Analysis: Revista de Análisis Turístico*, 28(2), 54-92. <https://doi.org/10.53596/jta.v2i28.400>
- Etxezarreta-Etxarri, A., Izagirre-Olaizola, J., Morandeira-Arca, J., eta Mozo Carollo, I. (2020). Urban Touristification in Spanish Cities: Consequences for the Rental-Housing Sector in San Sebastian. *Economic Research-Ekonomska Istraživanja*, 33(1), 1294-1310. <https://doi.org/10.1080/1331677X.2020.1755878>
- Eusko Jaurlaritza (2025). Enplegua industria turistikoan 2025 - Txostena 2. hiruhilekoa. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo saila. <https://www.euskadi.eus/enplegua-industria-turistikoan/web01-a2behtur/eu/>
- Eustat. (2025, urtarilak 22). 2024an sarrerak eta gaualdiak % 2,1 eta % 3,4 igo dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, eta marka historikoa ezarri dute. https://eu.eustat.eus/elementos/ele0023100/ti_2024an-sarrerak-eta-gaualdiak--21-eta--34-igo-dira-euskal-aeko-hotel-establezimenduetan-eta-marka-historikoa-ezarri-dute/not0023170_e.html
- Fainstein, S. (2018). The just city. *International Journal of Urban Sciences*, 22(1), 1-18. <https://doi.org/10.1080/12265934.2017.1412202>
- García-Hernández, M., Ivars-Baidal, J., eta Mendoza de Miguel, S. (2019). Overtourism in urban destinations: the myth of smart solutions. *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*, 83, 2830, 1-38. <http://dx.doi.org/10.21138/bage.2830>

- Goodwin, H. (2017). The challenge of overtourism. *Responsible Tourism Partnership Working Paper* 4. <https://responsibletourismpartnership.org/overtourism>
- Gravari-Barbas, M., eta Guinand, S. (Eds.). (2017). *Tourism and gentrification in contemporary metropolises: International perspectives*. Routledge.
- Gotham, K. F. (2005). Tourism gentrification: The case of New Orleans' Vieux Carré (French Quarter). *Urban Studies*, 42(7), 1099-1121. <https://doi.org/10.1080/00420980500120881>
- Halkier, H., & Jensen, J. F. (2020). *Residents as co-creators in Copenhagen's place branding and tourism development*. Copenhagen Business School. https://research-api.cbs.dk/ws/portalfiles/portal/60760474/310210_MasterThesis.pdf
- Hall, C. M. (2011). A typology of governance and its implications for tourism policy analysis. *Journal of Sustainable Tourism*, 19(4-5), 437-457. <https://doi.org/10.1080/09669582.2011.570346>
- Harvey, D. (2012). *Rebel cities: From the right to the city to the urban revolution*. Verso.
- Hiernaux, D., eta González, C. (2014). Turismo y gentrificación: El caso de la Ciudad de México. *Revista de Geografía Norte Grande*, 58, 55-70.
- Huete, R., eta Mantecón, A. (2018). El auge de la turismofobia ¿hipótesis de investigación o ruido ideológico? *Pasos*, 16(1), 9-19. <https://doi.org/10.25145/j.pasos.2018.16.001>
- InsideAirbnb. (2023). Datos abiertos sobre viviendas turísticas en San Sebastián. *InsideAirbnb.com*. <https://insideairbnb.com>
- Izagirre-Olaizola, J., Etxezarreta-Etxarri, A., Carollo, I. M., eta Morandeira-Arca, J. (2021). Turismoaren eragina harrera-hirian: Donostiako kasua. *Lurralde: Investigación y Espacio*, 44, 211-236. https://www.ingeba.org/lurralde/lurranet/lur44/Lurralde-44-2021_Izagirre.pdf
- Jordan, E. J., Lesar, L., eta Spencer, D. M. (2021). Clarifying the interrelations of residents' perceived tourism-related stress, stressors, and impacts. *Journal of Travel Research*, 60(1), 208-219. <https://doi.org/10.1177/0047287519888287>
- Koens, K., Postma, A., eta Papp, B. (2018). Is overtourism overused? Understanding the impact of tourism in a city context. *Sustainability*, 10(12), 4384. <https://doi.org/10.3390/su10124384>
- Kuščer, K., eta Mihalič, T. (2019). Residents' attitudes towards overtourism from the perspective of tourism impacts and cooperation —The case of Ljubljana. *Sustainability*, 11(6), 1823. <https://doi.org/10.3390/su11061823>
- Lefebvre, H. (1968). *Le droit à la ville*. Anthropos.
- Milano, C., Novelli, M., eta Cheer, J. M. (2019). Overtourism and degrowth: A social movements perspective. *Journal of Sustainable Tourism*, 27(12), 1857-1875. <https://doi.org/10.1080/09669582.2019.1650054>
- Morandeira-Arca, J., Mozo-Carollo, S., Izagirre-Olaizola, J., eta Etxezarreta-Etxarri, A. (2023). Is Airbnb a peer-to-peer community? The professionalization of collaborative economy platforms in Spain. *REVESCO, Revista de Estudios Cooperativos*, 143, e9248929. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/9248929.pdf>
- Milano, C., González-Reverté, F., eta Benet Mòdico, A. (2023). The social construction of touristification. Residents' perspectives on mobilities and moorings. *Tourism Geographies*, 25(4), 1273-1291.

Turistifikazioa eta gobernantza gatazkatsua Donostian: hiritarren ikuspegia eta bizigarritasunaren erronka*Julen Izagirre-Olaizola, Imanol Mozo Carollo, Xavier Mínguez Alcaide*

- Mozo Carollo, I., Morandeira-Arca, J., Etxezarreta-Etxarri, A., eta Izagirre-Olaizola, J. (2024). Is the effect of Airbnb on the housing market different in medium-sized cities? Evidence from a Southern European city. *Urban Research & Practice*, 17(2), 260-279. <https://doi.org/10.1080/17535069.2023.2179419>
- Naiz. (2023, marzo 9). Donostia suspende la concesión de nuevas licencias para hoteles y viviendas de uso turístico. *Naiz.eus*. <https://www.naiz.eus/info/noticia/20230309/donostia-suspende-la-concesion-de-nuevas-licencias-para-hoteles-y-viviendas-de-uso-turistico>
- Nieuwland, S., eta Del Romero Renau, L. (2021). The impact and regulatory issues of Airbnb in a mid-sized city: Valencia (Spain). In Siegler, T. eta Corcoran J. (2021). *A modern guide to the urban sharing economy*, 103-118. London: Edward Elgar.
- Noticias de Gipuzkoa. (2025, martxoak 22). El turismo en Gipuzkoa continúa al alza y supone el 8,4 % del PIB. *Noticias de Gipuzkoa*. <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/sociedad/2025/03/22/turismo-gipuzkoa-continua-alza-supone-9388460.html>
- Novy, J., eta Colomb, C. (Eds.). (2017). *Protest and resistance in the tourist city*. London: Routledge.
- Novy, J., eta Colomb, C. (2019). Urban tourism as a source of contention and social mobilisations: A critical review. *Tourism Planning & Development*, 16(4), 358-375. <https://doi.org/10.1080/21568316.2019.1577293>
- O'Sullivan, E. (2020). Airifying Amsterdam: An investigation into residents' perceptions of tourism and short-term rentals in Amsterdam (Master's thesis).
- Sequera, J., eta Nofre, J. (2018). Shaken, not stirred: New debates on touristification and the limits of gentrification. *City*, 22(5-6), 843-855. <https://doi.org/10.1080/13604813.2018.1548819>
- Tuomi, A., eta Ascensão, M. P. (2023). Deliberative governance for tourism platforms. *Annals of Tourism Research*, 103, Article 103647. <https://doi.org/10.1016/j.annals.2023.103647>
- UNWTO (2019). *Barcelona, Spain. In 'Overtourism'? Understanding and Managing Urban Tourism Growth beyond Perceptions, Volume 2: Case Studies. World Tourism Organization*.
- WTTC (World Travel & Tourism Council). (2025a, apirilak 9). *Global travel & tourism is strong despite economic headwinds*. <https://wttc.org/news/global-travel-and-tourism-is-strong-despite-economic-headwinds>.
- WTTC (World Travel & Tourism Council). (2025b, maiatzak 29). *Spain's tourism sector could exceed €260 billion by 2025*. <https://wttc.org/news/spain-tourism-sector-could-exceed-260-billion-euros-by-2025>.
- Zhang, H., Leung, X. Y., eta Bai, B. (2021). Tourism destination governance: A systematic literature review and future research agenda. *Travel and Tourism Research Association: Advancing Tourism Research Globally Conference Proceedings*. <https://hdl.handle.net/20.500.14394/49254>